



ARESOKO UDALA

31876 (Nafarroa)

ARESOKO UDALBATZAREN EZ OHIKO BILKURA

Areson, 2016ko maiatzaren 11an, arratsaldeko 18:30etan eta Aresoko udal aretoan, ez ohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Ur Alguero Chivite Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ohiko bilkura burutzeko.

Organua : Batzarra

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2016/05/11

Ordua: 18:30

Lekua: Udalaren Batzar Aretoa

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

Ur Alguero Chivite

M^a Asunción Arratibel Onsalo

Eden Alguero Chivite

Jon Gurrutxaga Etxeberria

Xabier Domingo Zubillaga Uranga

Javi Belaunzaran Mariezcurrena

Mikel Baraibar Garmendia

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Ione Miren Lazkoz Maiza

GAI ORDENA:

1.- Hiri jarduerako plan berezia hasiera batean onartzea Aresoko 1.Poligonoko 65. lurzatian, Txomin Artola Arraiagok sustatua.

2.- Eskaera eta galderak.

3.- Denetarik

Esan-eginak eta erabakiak

Alkate jaunak bilera hasi eta berau publikoa izendatua, arratsaldeko 18:30 direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko, beharrezkoa den bertaratutako en quoruma nahikoa dela, gai zerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

1.-Hiri jarduerako plan berezia hasiera batean onartzea Aresoko 1.Poligonoko 65. lurzatian, Txomin Artola Arraiagok sustatua.

Etxe-Txuria etxean egin nahi diren lanen berri ematen du Aresoko Alkateak Txomin Artola Arraiagok aurkeztutako hiri jarduera plan berezian oinarrituta.

Plan berezi honen baitan Aresoko 1. Poligonoko 65. Lurzatian, Etxe-Txuria etxean, eraikigarritasuna 13,35 metro karratutan handitzea izapidetzen da. Eraikin nagusiari kanpoko aldetik eskailera bat atxikitzea teiltatu azpiko solairuari aparteko sarrera bat emanez.

Espedientea aztertuta, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

1.1.- Aresoko 1. poligonoko 65. Lurzatiko hiri jarduera plan berezia hasiera batean onartzea.

1.2.-Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluan ezarritakoari jarraituz, espedientea jendaurrean egonen da hilabeteen, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, interesdunek azter dezaten eta bidezko alegazioak aurkez ditzaten.

1.3.- Erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

8.-Eskaera eta galderak.

9.- Denetarik.

Aztertu beharrezkoa aztertuta, 18:50 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.

